

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2022ko abendua

Aurkibidea

1. BPGaren hazkundera
2. Inflazioa
3. Kanpo merkataritza
4. PMI konposatua
5. Sentimendu ekonomikoa
6. Batzordearen aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %3,8 hazi zen hirugarren hiruhilekoan

Aldi berean, lanpostuen kopurua %2,0 handitu zen.

2. EAEko inflazioa %6,9ra jaitsi zen urrian.

Elektrizitatearen merkatzea da KPlaren jaitsiera horren arrazoi nagusia.

3. EAEtik atzerrira esportatutakoa beste maximo historiko batera hurbiltzen ari da.

Salmenten hazkundera energiari eta gainerako produktu-ei egin zien mesede.

4. PMI konposatuak igoera arina izan du eurogunean azaroan.

Manufakturen indizeak hobera egin du eta zerbitzuenak, berriz, bere horretan dirau.

5. Europar Batasuneko sentimendu ekonomikoak hobera egin zuen azaroan.

Joan den otsailaz geroztik, adierazleak gora egin duen lehen hilabetea da.

6. Europar Batasuneko ekonomiaren hazkundera gelditu egingo da 2023an.

Europako Batzordeak bi puntutan murriztu du datorren urterako espero den hazkundera.

EAEko ekonomia %3,8 hazi zen hirugarren hiruhilekoan


BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

2022ko 3. HIRUHILEKOA

URTE ARTEKO TASA

%3,8




Eustaten arabera, 2022ko hirugarren hiruhilekoan EAEko ekonomia %3,8 hazi zen urte arteko tasan, aurrerapenean argitaratu zuten zifra baino hamarren bat gutxiago. Nolanahi ere, igoera oso esanguratsua da oraindik. Eskariari dagokionez, barne eskariaren hazkunde erritmoaren egonkortasuna nabarmentzen da, aurreko hiruhilekoko datua (%2,4) berdindu baitzuen. Hala, familien kontsumoa moteldu egin zen udako hilabetee-tan, baina administrazio publikoen gastuak

(bigarren hiruhilekoan baino gutxiago murriztu zen) moderazio hori konpentsatu zuen, eta azken kontsumoaren aldakuntza tasa %1,7 izan zen, aurreko datua baino bi hamarren handiagoa. Beste aldetik, inbertsioa hamarren bat baino ez zen moteldu, %4,9ra arte. Aitzitik, kanpo saldoak BPGaren hazkundeari egindako ekarpena txikia goa izan zen, esportazioen eta inportazioen hazkundea aurreko aldietakoa baino motelagoa izan zelako.


KONTSUMO PRIBATUA

Urte arteko aldakuntza tasa




KONTSUMO PUBLIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa




INBERTSIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




ESPORTAZIOAK

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA


Urte arteko aldakuntza tasa



Eskaintzaren ikuspegitik, EAEko ekonomiaren hiru sektore nagusiek aldakuntza tasa esanguratsua eskuratu zituzten. Hala, zerbitzuen balio erantsia %4,3 igo zen urte batetik bestera, merkataritzaren, ostalaritzaren eta garraiaren atalean izandako hazkunde handiari esker (%9,9). Bestalde, industriak hazkunde erritmo bikaina leundu zuen, eta %3,8an kokatu zen, ekonomia osoaren ildotik. Azkenik, eraikuntzak ahulezia zantzuak erakutsi zituen urtearen lehen erdian, baina hirugarren hiru-hilekoan %2,5era igo zen.


INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

INFLAZIOA

EAEko inflazioa % 6,9ra jaitsi zen urrian

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



EAEko KPIa urte arteko %6,9an kokatu zen urrian, hots, daturik baxuena izan zen Ukrainako gerra hasi zenetik. Zehazki, puntu bat eta sei hamarren murriztu zen aurreko hilabetearen aldean, eta, beraz, moteltzen jarraitu zuen, uztailean eta abuztuan %10eko langa gainditu ondoren. Beheranzko zuzenketa nabarmen hori energiaren bilakaerak eragin zuen, nahiz eta elikadurak maximoetan jarraitu zuen.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2020	2021	2022ko urria	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	-0,1	3,1	6,9	6,9
Azpiko inflazioa (%79,5)	0,8	1,0	5,9	4,8
- Elikagai landuak (%15,8)	1,7	1,4	13,3	2,1
- Industria ondasunak (%22,7)	0,3	1,0	4,7	1,1
- Zerbitzuak (%41,0)	0,8	0,7	3,8	1,6
Hondar inflazioa (%20,5)	-4,0	12,1	10,4	2,1
- Landu gabeko janariak (%9,3)	4,0	2,6	15,3	1,4
- Energia (%11,2)	-9,4	21,3	6,1	0,7


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




BRENT PETROLIO UPELAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Dolarrek upeleko



GASAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Euro MWh-ko



Horiek horrela, elikagaien energiaren lekukoa hartu zuten inflazioaren motor gisa. Kostu energetikoaren apaltzea elektrizitatearen merkatetik eta, neurri txikiagoan, gasaren prezioetik iritsi zen. Espainiako Gobernuak argindarraren fakturaren igoera kontrolatzeko hartutako azken neurrien ondoren, elektrizitatea urtebete lehenagoko prezioan baino merkeago saldu zen, eta hori ez zen gertatzen 2020. urtearen amaieratik. Bestalde, gasak ere joera neurritsua izan

zuen, bere erreserbak maila onean daudelako eta orain arte meteorologia ona izan delako. Aitzitik, elikagaien prezioek gora egin zuten etengabe, nahiz eta lehengaien prezioak behera egin zuen eta elektrizitateak, lehen esan bezala, beherazko bilakaera izan zuen. Hori guztia dela eta, etxebizitza taldeak hamabi puntu eta bederatzi hamarren egin zuen behera, %1,8ra arte, eta elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak, aitzitik, errekor berria ezarri zuten (%15,3).

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2022ko urria

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	6,9	7,3	10,6
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	15,3	15,4	15,5
Edari alkoholdunak eta tabakoa	3,9	3,7	4,2
Jantziak eta oinetakoak	0,6	1,4	3,8
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	1,8	2,6	23,2
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	8,2	8,0	8,5
Osasuna	0,7	1,1	1,8
Garraioa	8,2	8,8	10,0
Komunikazioak	-1,9	-1,9	-0,9
Aisia eta kultura	2,9	3,1	4,9
Hezkuntza	1,8	1,5	4,1
Jatetxeak eta hotelak	7,7	7,9	8,4
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	4,0	4,4	3,8

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

EAetik atzerrira esportatutakoa beste maximo historiko batera hurbiltzen ari da


ESPORTAZIOAK GUZTIRA URTARRILETIK IRAILERA PILATUA

Miloi euro

ESPORTAZIOAK GUZTIRA. URTARRILETIK IRAILERA PILATUA

%29,7


Eustatek argitaratu dituen datuen arabera, EAEko kanpo merkataritza %29,7 handitu zen aurtengo lehen bederatzi hilabeteetan, eta 24.300 milioi euro inguruko salmentak pilatu ditu denbora horretan. Itxura guztien arabera, aurtengo, eta oso litekeena da urrian jadanik gertatzea azken hilabeteetako salmenta erritmoari eutsiz gero, 2018an erregistratutako urteko gehieneko zifra gaitutuko da, 25.788 milioi eurora iritsi baitzen orduan.



Gorakada handi hori energiaren salmentaren hazkundera oinarritu zen, produktu horiek indartsu egin baitzuten gora (%116,7), baina baita produktu ez-energetikoen salmentan ere, nabarmen hazi baitzen (%24,9) eta 22.111 milioi euro esportatu baitziren, aurrekaririk gabeko maila delarik. Estatistika horren arabera, esportazioen jardura irailean bizkortu zen, udako hilabeteetan izandako moteltze txiki baten ondoren.


ESPORTAZIO EZ ENERGETIKOAK. URTARRILETIK IRAILERA PILATUA

Miloi euro



ENERGIAKO ESPORTAZIOAK. URTARRILETIK IRAILERA PILATUA

Miloi euro



ESPORTAZIOAK HELMUGAREN ARABERA. URTARRILETIK IRAILERA PILATUA

Herrialdea	%
Alemania	%15,5
Frantzia	%15,4
Herbehereak	%6,8
AEB	%6,4
Erresuma Batua	%6,2
Italia	%5,4
Belgika	%5,1
Portugal	%4,5
Polonia	%2,3

Alemaniak eta Frantziak EAEko atzerrirako esportazioen jomuga nagusia izaten jarraitu zuten, eta Europako ekonomiaren moteltzea gorabehera, oraingoz ez dute ahultasuneko zantzurik erakutsi. Herbehereek, AEBek eta Erresuma Batuak osatu zuten EAEko espedizioen erdia baino gehiago biltzen dituen rankinga. Esportazioen adar nagusiei dagokienez, ekipo ondasunak (%17,1eko hazkundearekin) eta metal arruntak eta horien manufakturak (%34,6ko hazkundearekin) izan ziren salmenten bultzatzaile nagusiak.


ESPORTAZIOEN BANAKETA. URTARRILETIK IRAILERA PILATUA

Arantzel taldea	%
Ekipamendu ondasunak	%40,9
Makinak eta aparatuak	%16,9
Garraio materiala	%24,0
Ohiko metalak eta manuf.	%24,7
Produktu mine.eta energetikoak	%6,1
Plastikoa eta kautxua	%9,1
Nekazaritzako produktuak	%6,8
Produktu kimikoak	%3,4
Papera	%2,8

EAEko inportazioek ere bilakaera positiboa izan zuten eta 21.873 milioi euro inguru izan ziren, inportazio ez-energetikoak maximoetan mantendu zirelako. Hala, zenbait hilabetez EAEko merkataritza saldo positiboa estutu ondoren, petrolioaren prezioen igoeraren ondorioz (uztailean eta abuztuan saldoa defizitarioa izatera iritsi zen), esportazioak inportazioak baino gehiago izan ziren irailean, eta, horri esker, 2022ko lehen bederatzi hilabeteetan 2.366,5 milioi euroko saldo positiboa eskuratu da.

INPORTAZIOAK GUZTIRA URTARRILETIK IRAILERA PILATUA


Milioi euro



Iturria: Eustat

SALDOA GUZTIRA URTARRILETIK IRAILERA PILATUA

Milioi euro




PMI konposatuak igoera arina izan du eurogunean azaroan

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2022KO AZAROA


47,8




Azaroan, euroaren eremuko PMI konposatua puntu erdi igo zen, eta 47,8an kokatu zen, uz-kurdura eremuan oraindik ere. Hobekuntza manu-fakturen atalean baino ez da hauteman, urri-an 43,8ko balioa izatetik azaroan 45,7koa izate-ra igaro baita. Hobekuntza txiki hori azaltzeko arrazoien artean, hornidura arazo txikiagoak eta enpresa konfiantzaren igoera aipatu dira. Hala-ber, prezioek eragindako presioak arindu egin

dira azken aldian. Beste aldetik, zerbitzuen indi-zeak aurreko datua errepikatu zuen azaroan (48,6), eta horrek ere adierazten du sektoreak okerrera egin duela. Hazi ziren jarduera adarrak softwarea, zerbitzu industrialak, komunikabide-ak, produktu farmazeutikoak eta bioteknologia izan ziren. Aitzitik, jaitsierarik handienak pro-dukto kimikoetan eta plastikoetan gauzatu zi-ren.


MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA



ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA




PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




Herrialdeka, Alemaniako indize konposatuak hobera egin du urriarekin alderatuta, eta 46,4koa da orain, etorkizunarekiko konfiantza handiagoa dutelako eta kostuak gutxiago igo direlako. Kontrako noranzkoan, Frantzian adierazleak 48,8ra arte egin zuen okerrera, eta 2021eko otsailetik lehen aldiz sartu zen uzkuertze eremuan. Manufakturrek ekoizpena murriztu zuten berriro, baina aurreko hilabeteetan baino gutxiago. Hala ere, zerbitzuek dinamismoa galdu zuten.

Eurogunetik kanpo, bai Erresuma Batuan (48,3), bai AEBetan (46,3), bai Japonian (48,9), PMI konposatuak okerrera egin zuen aurreko hilabeteen aldean, eta uzkuertura eremuan dago hiru herrialdeetan.


PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit




SENTIMENDU EKONOMIKOA

Europar Batasuneko sentimendu ekonomikoak hobera egin zuen azaroan

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROPAR BATASUNA

2022KO AZAROA

92,2



Europako Batzordeak argitaratutako informazioaren arabera, azaroan puntu bat hobetu zen sentimendu ekonomikoaren indizea, 92,2ra iritsi arte, eta, oraindik ere batez besteko baliorearen (100) azpitik dagoen arren, otsailetik, hau da, Ukrainaren inbasioa hasi zenetik, izan den lehen igoera da. Hobekuntza horren gakoak familien konfiantzaren errebotean dago, industria sektorearekiko konfiantzaren narriadura


konpentsatzeko balio izan baitzuen. Beste aldetik, zerbitzuetan, txikizkako merkataritzan eta eraikuntzan ez zen ia aldaketarik egon urriarekin alderatuta.

Enpleguari dagokionez, igurikimenearen indizea 106,3 punturaino igo zen, kasu honetan batez bestekoaren gainetik dagoen maila baita, industriaren eta, batez ere, zerbitzuen hobekuntzari esker.


ENPLEGU IGURIKIMENAK.
EUROPAR BATASUNA

2022KO AZAROA

106,3




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA



Herrialdeka, Alemanian eta Italian hobekuntza eskuratu zen. Aitzitik, Frantziak eta Espainiak atzerakada txikia izan zuten. Alemanian eta Italian familien konfiantzak gora egin zuen hainbat puntutan, nahiz eta oraindik nolabaiteko ezkortasuna nabari zaien. Bestalde, Alemanian (92,2) industriaren eta eraikuntzaren egoera nahiko ona da, eta zerbitzuek eta txikizkako merkataritzak irudi egonkorra dute, baina tonu negatiboarekin. Italian (99,3), txikizkako merkataritzaren eta eraikuntzaren garai ona


SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




nabarmen da, nahiz eta sektore horrek atzerapausoa eman duen azaroan.

Frantzian (94,6), familien konfiantza handiagok ez du industriaren unerik txarrena konpentsatu. Orobat, zerbitzuek eta eraikuntzak baikortasun pixka bat galdu dute. Azkenik, Espainiak 96,4 puntura jaitsi du bere indizea, eta industriak eta txikizkako merkataritzak okerre egin dute argi eta garbi. Aitzitik, familien zerbitzuek eta konfiantzak hainbat puntu egin dute hobera.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA




Iturria: Europar Batzordea.

EUOPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

Europar Batasuneko ekonomiaren hazkundera gelditu egingo da 2023an

EUOPAR BATASUNAREN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Europako Batzordeak, aurreikuspenei buruzko udazkeneko txostenean, kalkulatu du Europar Batasunak %3,3ko hazkunderarekin amaituko duela 2022. urtea.


Errusiak Ukrainaren inbasioa amaituko duelako inolako zantzurik gabe, Europar Batasuneko ekonomiak gatazkarekiko duen esposizio handiaren ondorioz, %0,3 baino ez da haziko 2023an. Horrek esan nahi du beheranzko berrikuspena bi puntukoa izango dela aurreko aurreikuspenarekin alderatuta. Energiaren eta lehengaien prezioen igoerak etxeetako errenta erabilgarria murriztea ekarriko duela aurreikusten da, kontsumo pribatuaren hazkundera eragotziz.

BPG. EUOPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

%	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2021	2022	2023	2022	2023
Europar Batasuna	3,3	0,3	1,6	0,6	-2,0
Eurogunea	3,2	0,3	1,5	0,5	-2,0
Alemania	1,6	-0,6	1,4	0,0	-3,0
Belgika	2,8	0,2	1,5	0,8	-1,6
Espania	4,5	1,0	2,0	0,5	-2,4
Frantzia	2,6	0,4	1,5	-0,5	-1,4
Italia	3,8	0,3	1,1	1,4	-1,6
Herbehereak	4,6	0,6	1,3	1,3	-1,0
Portugal	6,6	0,7	1,7	0,8	-2,0
Irlanda	7,9	3,2	3,1	2,5	-1,2
Grezia	6,0	1,0	2,0	2,5	-2,1
Austria	4,6	0,3	1,1	0,7	-1,6


ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Bestalde, lan merkatua ez da epe laburrean gehiegi ahulduko ekonomiaren hoztearen ondorioz. 2022ko langabezia tasa %6,2 izango dela aurreikusten da Europar Batasun osorako, eta 2023an %6,5raino igoko dela aurreikusten da. 2024rako aurreikuspenak hazkundearen bidea berreskuratuko dela eta langabezia tasa pixka bat jaitsiko dela adierazten du, nahiz eta bi gai horiek ziurgabetasun handiko nazioarteko egoera politikoaren eta Europar Batasunean energiaren arloan hartzen diren neurrien mende geratzen diren.

LANGABEZIA TASA. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

%	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2021	2022	2023	2022	2023
Europar Batasuna	6,2	6,5	6,4	-0,5	0,0
Eurogunea	6,8	7,2	7,0	-0,5	0,2
Alemania	3,1	3,5	3,5	-0,2	0,3
Belgika	5,8	6,4	6,3	0,0	0,8
Espainia	12,7	12,7	12,6	-0,7	-0,3
Frantzia	7,7	8,1	7,7	0,1	0,5
Italia	8,3	8,7	8,5	-1,2	-0,2
Herbehereak	3,7	4,3	4,3	-0,3	0,1
Portugal	5,9	5,9	5,7	0,2	0,4
Irlanda	4,4	4,8	5,0	-0,2	-0,2
Grezia	12,6	12,6	12,1	-1,1	-0,5
Austria	5,0	5,2	5,3	0,0	0,4

Iturria: Europar Batzordea eta Eurostat.



ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021		2022		
			III	IV	I	II	III
BPG	-9,6	5,9	4,7	4,9	5,8	5,0	3,8
Barneko azken kontsumoa	-8,9	5,2	2,9	3,8	2,6	1,5	1,7
Familien kontsumoa	-12,1	5,6	2,5	4,0	3,2	3,0	2,4
Administrazioaren kontsumoa	2,9	3,9	4,4	3,3	0,6	-3,1	-0,7
Kapital eraketa gordina	-12,1	6,0	2,9	3,0	4,9	5,0	4,9
Barne eskaria	-9,7	5,4	2,9	3,6	3,2	2,4	2,4
Esportazioak	-15,9	12,7	13,6	13,5	13,5	13,7	9,2
Inportazioak	-15,8	11,6	12,6	9,3	10,4	8,5	5,6
Lehen arloa	-16,9	21,9	29,1	14,5	-1,7	-3,2	8,0
Industria eta energia	-12,2	6,1	2,4	3,7	6,5	6,1	3,8
Eraikuntza	-14,4	4,5	4,7	2,5	1,9	1,5	2,5
Zerbitzuak	-7,9	5,8	5,2	5,5	6,2	5,6	4,3
Balio erantsi gordina	-9,4	5,9	4,7	5,0	6,0	5,4	4,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-11,9	6,1	4,2	4,1	3,9	3,2	2,8
Enplegua	-6,2	5,9	5,1	5,0	4,9	3,7	2,0

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2022		2022	2023				2023
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	3,9	2,4	4,3	2,2	1,7	1,7	2,8	2,1
Barneko azken kontsumoa	1,6	1,2	1,8	1,3	1,3	1,3	1,7	1,5
Familien kontsumoa	2,5	2,0	2,7	1,3	1,1	1,2	1,7	1,4
Administrazioaren kontsumoa	-1,4	-1,5	-1,4	1,4	1,9	1,8	1,5	1,7
Kapital eraketa gordina	5,1	4,3	4,8	3,3	2,4	2,5	3,3	2,9
Barne eskariaren ekarpena	2,5	2,0	2,5	1,8	1,6	1,6	2,1	1,8
Kanpo eskariaren ekarpena	1,5	0,4	1,8	0,3	0,1	0,1	0,7	0,3
Lehen arloa	-6,3	-7,3	-4,6	-0,2	-11,3	-4,5	-2,0	-4,7
Industria	5,2	2,9	5,2	1,4	0,3	-0,3	-0,5	0,2
Eraikuntza	1,6	1,8	1,7	1,6	2,9	3,3	3,1	2,7
Zerbitzuak	4,2	2,8	4,7	2,9	2,7	3,0	2,9	2,9
Balio erantsi gordina	4,2	2,7	4,6	2,4	2,0	2,2	2,1	2,2
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,3	1,6	2,8	1,9	1,7	1,6	1,4	1,6
Lanaldi osoko lanpostuak	1,5	1,0	2,7	1,0	1,0	1,0	1,8	1,2
Landunak (BJA)	1,2	1,4	2,0	0,7	0,9	0,8	1,1	0,9

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023		2022	2023
Confebask	5,9	—	Laboral kutxa	3,6	2,7
Hispalink (BPGaren aldakuntza)	4,3	2,7	BBVA	3,5	1,1
Ceprede	3,9	1,3			

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021		2022		
			III	IV	I	II	III
BPG	-11,3	5,5	4,2	6,6	6,7	6,8	3,8
Kontsumo pribatua	-12,4	6,0	4,0	4,6	3,5	2,5	1,5
Kontsumo publikoa	3,5	2,9	3,1	-0,1	-1,0	-2,9	-2,7
Kapital finkoaren eraketa gordina	-9,7	0,9	-3,0	-1,7	3,5	4,9	6,3
- Aktibo finko materialak	-11,1	0,1	-5,0	-3,4	2,6	4,4	6,3
- Eraikuntzan	-10,2	-3,7	-6,7	-3,9	-0,2	4,4	5,8
- Ekipamendu ondasunetan	-13,3	6,3	-3,0	-3,3	6,8	4,2	7,1
- Jabetza intelektualaren produktuak	-2,5	4,7	6,7	6,3	7,4	7,0	6,3
Nazio eskaria (ekarpena)	-9,1	5,2	3,8	4,9	3,8	1,9	0,8
Esportazioak	-19,9	14,4	15,2	16,4	19,9	23,1	18,0
Inportazioak	-14,9	13,9	14,3	11,6	12,2	8,8	9,8

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023		2022	2023
AFI	4,5	0,9	Mapfre Economics	4,4	1,0
BBVA	4,4	1,0	Oxford Economics	4,5	0,8
CaixaBank	4,5	1,0	Repsol	4,3	1,0
Merkataritza ganbera	4,1	2,2	Santander	4,5	1,0
CEEM-URJC	4,6	1,0	Metyis	4,6	0,9
CEPREDE-UAM	4,5	1,5	Universidad Loyola Andalucía	4,5	1,1
CEOE	4,6	0,8	Batez bestekoa	4,5	1,1
Equipo Económico (Ee)	4,6	1,9	Gobernua (2022-10)	4,4	2,1
EthiFinance Ratings	4,4	0,9	Espainiako Bankua (2022-10)	4,5	1,4
FUNCAS	4,5	0,7	Europar Batzordea (2022-11)	4,5	1,0
ICAE-UCM	4,6	1,5	NDF (2022-10)	4,3	1,2
IEE	4,5	1,2	ELGA (2022-11)	4,7	1,3
Intermoney	4,3	1,4	Consensus Forecast (2022-11)	4,5	0,8

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako Bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Merkataritza ganbera, CEEM-URJC, Equipo Económico (Ee), EthiFinance Ratings, ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Oxford Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía eta Metyis.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2021		2022		
			III	IV	I	II	III
AEB	-2,8	5,9	5,0	5,7	3,7	1,8	1,9
Txina	2,0	8,1	4,9	4,0	4,8	0,4	3,9
Japonia	-4,5	1,7	1,2	0,5	0,9	1,6	1,9
Kanada	-4,9	4,5	3,8	3,2	2,9	4,6	3,6
Europar Batasuna	-5,7	5,4	4,2	5,0	5,6	4,3	2,4
Eurogunea	-6,1	5,3	3,9	4,8	5,5	4,3	2,1
Alemania	-3,7	2,6	1,8	1,2	3,5	1,7	1,3
Frantzia	-7,8	6,8	3,6	5,1	4,7	4,2	1,0
Erresuma Batua	-11,0	7,5	8,5	8,9	10,9	4,4	2,4
Italia	-9,0	6,7	4,8	6,6	6,4	5,0	2,6
Herbehereak	-3,9	4,9	5,6	6,2	6,5	5,2	3,1

Iturria: Eurostat eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2022KO AZAROA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023
AEB	1,8	0,2	8,1	4,1	3,7	4,4
Japonia	1,5	1,4	2,3	1,7	2,6	2,5
Kanada	3,2	0,5	6,9	3,8	5,4	6,1
Europar Batasuna	3,1	0,1	8,6	6,1	—	—
Eurogunea	3,2	-0,1	8,5	6,0	6,8	7,2
Alemania	1,5	-0,9	8,2	6,9	5,3	5,6
Frantzia	2,5	0,2	5,5	4,5	7,3	7,6
Erresuma Batua	4,2	-0,9	8,9	7,1	3,7	4,5
Italia	3,5	-0,2	8,0	5,6	8,2	8,5
Espainia	4,5	0,8	8,7	4,3	—	—
Herbehereak	4,5	0,2	11,0	6,6	—	—

Iturria: Consensus Forecast.